

Benita Eizagirre Ibarguren

*Zarautz,
Gipuzkoa
(1909-2011)*

Aurkibidea

Biografia



Gurmendi baserrian jaio bazen ere, herrian lan egindakoa da, neskame gisa. Gizona ere Urtetakoa zuen, Ixasti baserrikoa. 24 urterekin ezkondu eta herrira jaitsi ziren.

Zintak

ZAR-011

- **Proiektua:** Zarautz Hizketan - Zarauzko euskara eta ahozko ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Data:** 2004-12-23
- **Iraupena:** 92 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Transkribatzailea(k):** Zabaleta Zuloaga, Miren

ZAR-104

- **Proiektua:** Zarauztar aitona-amonen hizkera
- **Elkarrizketatzailea(k):** Murua Uria, Imanol
- **Data:** 1987-01-01
- **Iraupena:** 20 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Transkribatzailea(k):** Murua Uria, Imanol

Pasarteak

1. Eskola

- **Erref:** ZAR-011/003
- **Iraupena:** 0:07:14. **Hasi:** 01:03:23. **Bukatu:** 01:10:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Zenbat ziren familian. Baserrian nortzuk bizi ziren. Txikitako kontuak. Noiz hasi zen eskolara. Maisu-maistrak nortzuk ziren. Urtetako eskola noiz kendu zuten.

Transkripzioa

- Eta, zenbat, zenbat anai-arreba ziñaten baserriyan?
- Gu, hamar izan ta* zortzi hazi, bi txikitan jaio ta beehala hillak.
- Zenbat neska ta zenbat mutil ziñaten?
- Ba... bizi giñan lau neska ta lau mutill, zortzi.
- Eta, zein gehio bizi zan baserriyan zuekin?
- Pues, amona eta aita-amak.
- Eta, gogoratzen dituzu txikitan, zure txikitako urte haiek baserrikuak? Ze iten zenuten ta?
- Ba, eskolan hasi nitzan kumuniyo txikiya in ta, ein ta segituan, eta zortzi urte nittunian jun zan maistra, bakaziyuak hartu zitun, ta gehio ez zan etorri. Hurrena etorri zan hamaika urte nitunian, ta orduan 'e [...] zenbat ingo zitun ba, urte pare bat eo. Albisturko hua zan gaiñea. Ta berriz 'e alde in zun, eta, geo, aitona zahar bat bazan, hola, eskian ez baiña, zea, Parrokiko Santo Kriston eskia ta Urtetako San Sebastianen eskia, bi, neguan bi txandetan ibiltzen zan. Zeakua zan, hor, Lasartetikan, Añorgaldeako horkua, zea, etorrita ta sei duro entregatzen zitun Urtetan.

Ez dakit beak gixajuak zenbat irabaziko zun! Ta, hua 're tartietan, hillabetian bat eta zean, baserri baten ta besten ta, ta guri eskola ematen jardutzen zan, baiña, ez zekiyan zean... Dotriña eakusten ziun da, errezuak eakusten zixkigun da, eskribitzen 'e eakusten ziun, baiña kuentetan ez zekiyan beak, eta... hola zeatu giñan. Eta geo, nik zenbat urte nitun?... Hamahiru, hamabost, hamabost urte o, holako bat izango nittun, o igual gutxiyo, ba, hortxe, hamalau urte o, Mugika maistra etorri zan, azkoitiarra bea izatez. Gizona Bergarakua zun, eta pintoria, ta Ameriketa junda ta ibiltzen zitzaion. Harrek in zittun bastante urte, harek ingo zitun dozena erdi bat urte, bai. Ta geo, aldi batian beste maistrik ez zan izan. Ni ezkondu ta geo zeakua, este..., Aiten-Etxeko hortan bazan beste palaziyo legeko bat, nola esaten ziyoen harei?

- (Alaba) Montetxio?

- Montetxio! Montetxiokua, hola, burua 're oso ondo ez zuna, hua 're...

- (A) Oain Montxio...

- Bai...

- (Laguna) Muntxio, bai. Hor itxe bat zan.

- Hua ta, hola ibiliyak zian geo. Hua 're denboa pixkaten bai, ta geo Donostitikan etorrita 're bai ta, hola ibilli zian, urte batzuek pasa zituen gure baiño gazteaokuak, ni ezkondu ezkeoko kontuak.

- (L) Baiño, zu ya alde inda handikan...

- Bai, handikan alde inda ni. Eta geo gerra altxa zanian, Mugika hua 're hemendikan alde in zun, ta gehio ez zan bueltatu. Eta geoztikan zeoze maistra o berriz 'e kastillana, euskeraz ez zekiyana o, izan [...] beste urte paren baten eo hola geue gaztiak. Eta geo akabo gehio. Geo, hurrena eleizan da, zean, obrak eta iteko ta, orduan kanbiatu zan, kamiyuak eta Urteta orduan in zian ta, denbora haietan in zuen ba, eskola hori dana erdi ustelduta omen zeon ta hua kendu ta obrak in zituen. Eleiza arreglatu eta zea 're ein ziyoen, portikua 're, zea, Jesus Maria, hori, nola esan behar det...

- (L) Zibitayua?

- E?

- (L) Zibitayua?

- Zimitayua! Zimitayuakin ta, hola prepaatu zuen da eskola hua ya kendu zan, usteldua zeon ta. Eta geoztikan, ba, Zarautza eskola ikasi behar zunak.

- Euskeraz edo erderaz eman zenun?

- E?

- Garai haietan euskeraz o erderaz ikasi zenun? Han lehenbiziko...

- A! Nik, guk, euskeraz, baiño zeak, zazpi urtetikan ... a, seiekin hasi nitzan, eta zazpi urte tarte hortan zea zan, Juliana, Doña Juliana, Ziotzaneko Pedron andria, irundarra.

- (L) Hura gero San Pelaion eon zana?

- Bai, hua zan aurren-aurrena zea etorri zana... Urteta etorri zana. Hemezortzi urteko nexka gaztia, geo, bestia, hamasei urtekua, laguna, ahizpa, etorrita, Maritxu, eta... baiña haiek 'e, esaten due ba...

- (L) Erderaz haiek 'e, o euskeraz?

- Erderaz eakusteaagatikan jartzen ziun kastigua, belauniko, besuak zabaldua, euskeraz iten gendulako, ni baiño zaharraua...

- (A) Baiña beak bazekiten euskeraz?

- Bai! Baiña gu erderaz ikasteaatikan zan hua. Eta hantxe, danak ibiltzen zian: 'venir y llegar '... euskera batek baiño bestiak baldarrao eiñez, ba, ahal zan mouan.

- Ta zer zan 'venir y llegar '?

- Etortzeko 'venir ' eakutsiko ziyoen ta han bazian batzuk hola hitz eiten zuenak, gaizki!

2. Baserriko bizimodua

- **Erref:** ZAR-011/004
- **Iraupena:** 0:05:13. **Hasi:** 01:10:37. **Bukatu:** 01:15:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak

Laburpena:

<p>Baserriko lanak: ganaduekin, itulan... Nolakoa zen bizimodua baserrian. Iturrik ere ez zuten. Petrolioarekin egiten zuten argia. Karburoa. Honen inguruko pasadizo bat kontatzen du. Kaleak nolakoak ziren: galtzada zegoen kaleetan.</p>

3. Zarautz ingurua eta bertako jendea

- **Erref:** ZAR-011/006
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 00:18:20. **Bukatu:** 00:20:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

<p>Baratze handirik ez zuten; baratzeak San Pelaio inguruan gehiago. Soroa bai. Kalea nolakoa zen: oso etxe gutxi, beste guztia baserriak. Makatzanekuak.</p>

4. Neskame lanak

- **Erref:** ZAR-011/007
- **Iraupena:** 0:05:36. **Hasi:** 00:20:29. **Bukatu:** 00:26:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Hotelak eta pentsioak
- Aisia » Oporrak
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

13 urterekin neskame joan zen Azpirozenera. Ze lan egiten zituen. Plantxa nolakoa zen. Azpiroztarrak. Udar "Hotel La perla"n egoten ziren, hango nagusiak ziren eta. Kanpotik jende asko etortzen zen, batez ere abuztuan.

5. Zarauzko Hotelak; beraneanteak

- **Erref:** ZAR-011/008
- **Iraupena:** 0:05:53. **Hasi:** 00:26:05. **Bukatu:** 00:31:58

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Aisia » Taberna giroa » Hotelak eta pentsioak
- Aisia » Oporrak

Laburpena:

Beraneanteak zertara etortzen ziren. Hotela nolakoa zen. Gelak nolakoak ziren. Gosaria: kafesnea, panpota... Zenbat hotel zeuden Zarautzen: Gran Hotel, Hotel Alameda, Hotel Zarauz...

6. Baserritik kalera saltzera

- **Erref:** ZAR-011/011
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:35:00. **Bukatu:** 00:37:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

<p>Etxean ez zuten ogirik egiten. Ama esnea saltzera joaten zen kalera astoan eta bide batez erosketak egin. "Mendarratzak" (menda-belarrarekin egindako erratzak) saltzen zituzten plazan txakur haundi batean. Zer gehiago saltzen zuten plazan.</p>

Transkripzioa

- (L) Itxian 'e ingo zan ordun? Eingo zenduen itxian 'e... ogiya...
- Etxian ogiya? Ez, ez. Akordatzan naiz, gurian labe haundigiyta zan ta bestekuak labe txikiya ta han beak iñoiz eñ izan zuen ogiya baiño ez, ogiya kaletikan eamaten zan jeneralian.
- (A) Ordun baten bat etortzen zan egunero kalea, tratuak in, eo...
- Esnia! Esnia ta, geo arrautzak, Jesus! Arrautzak jateko 're bildurrak! Arrautzak diruakin zea ekartzen zan, oliyua ta, holako konprak eite zian ba. Ta azukria 're ez zan asko zeatzen, hua 're txarregiya iruitzen zitzaioen, da hantxe zintzo-zintzo.
- Zein etortzen zan, zure ama?
- E?
- Zure ama etortzen zan Zarautza?
- Bai, bai, bai, bai.
- Ta nola?
- Ba, hortxe. Ebiya iten zunen lokatzetan ta, zean, bide txar askuakin ta etorrita...
- (A) Baiña, astua hartuta, ez?
- Astuan, bai, astuakiñ. Geo, zeak, menda-erratzak ekartzen giñuzen, bildu ta amai ematen gendun ta menda-erratzak perra haundi banan saltzen zian plazan.
- Menda landariakin indako erratza. Geo, usaia zabaltzeko itxian, desinfektatzeko ta...
- Erderaz, oaiñ izenak 'e ahaztu iten zaixkit, baiña "menda, lo que es menda...". Bai. Ta babarruna ta hoiek 'e ekartzen zituen plaza saltzea, babarruna, esnezaliak eta 're eskatzen zuen batzutan ta bestetan ba, plazan saldu, babarruna ta, mendak eta... Noiz o noiz azan bat eo aza batzuek o, zeoze ekarriko zuen. Baatza gauza gutxi iten zan basarritan, eta souetako lana. Baatzak lan haundiya du.

7. Euskararen gorabeherak; esne-saltzaileen inguruko lexikoa

- **Erref:** ZAR-011/012
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 00:37:40. **Bukatu:** 00:39:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Nola deitzen zitzaion esnea erosten zuenari: kaleko esnezalia eta saltzen zuenari: baserriko esnezalia. Tolasako euskara.

Transkripzioa

- (A) Lehen esan dezu esnezaliak eskatzen zula, bezerua zan?
- Bai, hemen esaten zan kaleko esnezalia esnia hartzen zuna 're, eta saltzen zuna 'e bai. En cambio, Tolosan, denbora hartan esaten zan, Tolosan ondoena hitz eiten zala. Esnezalia kalekoa eta esneduna basarrikuei. Tolosan zala zeaik onena esaten zuen, hizketa edarra zala oso Tolosan.
- (A) Ta bezerua, nik uste det bezerua 're aitu izan dizutela. Ez al zendun esaten bezerua?
- Bai, bezerua 're esaten zan, noski. Hori esaten zitzaion kalekoei, basarriko

zeak: "bai, esnezaliak... bai, bezeruak... bat gehio dakate hau ta [...]"
Esnezalia, basarrikuak esnezalia behekuai, ta behekuak esnezalia,
basarriko esnezalia. En kanbio, Tolosan ez, Tolosan esneduna eta esnezalia.
Eta horregatik esaten zuen Tolosan oso hizketa ederra zala.

8. Astoarekin esnetara jaitsita gertatutakoa

- **Erref:** ZAR-011/013
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:39:03. **Bukatu:** 00:41:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

Esnea etxez etxe banatzen zuten. Nola izaten zen esnetara jaitea herrira. Astoarekin pasatutako pasadizoa. Animalien azkartasuna.

9. Bideen egoera; baserritarrek kalera egindako ibilbideak

- **Erref:** ZAR-011/014
- **Iraupena:** 0:02:49. **Hasi:** 00:41:03. **Bukatu:** 00:43:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

<p>Urtetatik herrirako bidea. Auzolanean konpontzen zuten bidea. Gonak jasota ibiltzen ziren neska gazteak lokatzatan ez zikintzearren. Kalera jaitsi ta oinetakoak aldatzen zituzten.</p>

10. Gaztetako janzkera

- **Erref:** ZAR-011/015
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 00:43:52. **Bukatu:** 00:45:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Nola janzen zen gaztetan: tergallezko soinekoa normalean eta jaietarako lanazkoa. Bota luzeak erabiltzen zituzten. 15 urte ingururekin jarri zuen moñoa.

11. Urtetako festak

- **Erref:** ZAR-011/018
- **Iraupena:** 0:05:15. **Hasi:** 00:48:45. **Bukatu:** 00:54:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

<p>Erromeriak: Laurkainera joaten ziren, eta, bestela, Urtetan bertan. San Sebastian eguna eta bigarrena ospatzen zituzten. Egun bat gurasoek ordaintzen zuten, hurrengo jaian neskak eta hurrengoan mutilek. Baserrietako mandioan egiten zen festa. Zer baserritan izaten zen.</p>

Transkripzioa

- Ta lehen aipatu du alabak festak eta iten ziala Urtetan ta: ibiltzen al ziñan zu hola, erromeitan ta hola umetan? O gaztetan?
- Ez, umetan ez, hasi ezkeo... hamar bat urtekiñ o hola, Laurgaiña ta hola jutun giñan. Huaxe, Laurgaiña ta. Gaiñuntzen, Urtetan bertan. Izaten zan ba, San Sebastian euna ta bigarrena. Ta hoi gurasuak zeatzen zuen, eleizako jun etorriyak eta zeatzen zituen. Ta geo, hurrengo jayen izaten zan nexkana. Nexkak paatzen zuen filarmonika eo zea, soiñu-jotzeko zea hori. Ta hurreneko jayian, mutillak paatzen zuen. Ohitura hoiek zian. Geo, etortzen zan Aiatikan emakume bat, ama bi alabakiñ o, solterak, geo ezkondu zian, baiña, haiek etortzen zian ta geo, behin basarri batekuak atenditzen ziyon soiñua jotzea etortzen zana, mandiyoa, basarritako mandiyuan iten zan pexta, zeatikan, San Sebastianetan gehienian egualdi txarra izaten zan ba, ta egualdi ona o ateri baldin bazan eo, plazan ibiltzen zian, ta geo illuntzian zeara, basarrita. Gure itxian ez zan behiñ 'e eoten. Gaiñeko Etxe ta Etxebeste, Erromin ta Elizamendi ta hoietan eiten zan festa ta Gurmendikuak iten zuen, ba, "bueno, hartu nahi baldin baezue, guk horrenbeste paatuko deu, ta batzui gustatu iten zitzaioen, perra batzuk irabazi iten zituen haiek plazan inguruko baserri haietan. Urteta behiñ 'e, Gurmendira behiñ 'e ez zian pesta itea etortzen, guk beti bestiai ematen giñoun.
- (A) Baiña, festa urte bakoitzian basarri batek in, basarri batian ingo zan?
- Bai.
- (A) Aldatzen, baiña...
- Bai, txandatz.
- Bai, bai, bai. Gurmendikuak behintzat zeoze paatzen zuen, akordatzen naiz, hoge duro eo hola.
- Ta ze iten zenuen, sueltuan?
- E?
- Dantza sueltuan ingo zenuen?
- Bai, bai, bai.
- (A) Baiña leku ixtua zan ta sueltuan baiña urre.
- Bai, horrenbesteaiñoko jende pillaikan ez, baiña, zenbat jungo zan, ba? Konbidau 're jutun zian batzuk, eta... Geo, Zarausko kaletikan 'e jutun zian batzuk eta...
- (A) Ni akordatzen naiz gure garaian Elizamendiñian danak pea-pea-pea inda.
- (A) Konbidaua 're asko izaten zan garai haietan basarritan, e? Konbidaua...
- Batzuek, batzuek, toki batzuetan, toki batzuetan gehio, baiña ez, horrenbesteaiñoko zean 'e... Gaiñeko Etxen ez zan konbidau asko izaten, ta Elizamendin 'e ez, ta Errominen 'e ez, ta...
- Ta nola zan asunto hau, konbidauan asuntua... Nola izaten zan...
- E?
- Nola izaten zan konbidauan asuntua?

- Konbidauana? Ba, Urtetan pesta zanen, gure etxea etortzen zian ta geo juten giñan hara ba, etortzen zian haiek 'e beste egun bat jartzen zuen konbidauak iteko, juten giñan hara 're konbidau. Baiña hola, jende askoko zeaikan...

- (A) Lehengusu propiyuak o izeba-osabak o zein?

- Bai, hola.

- Familiya?

- Bai. En kanbio, segun. Gure besten bizi zan, izaten zian ba, amistade haundiya zuen kaperuanekuak, Kaperotxipi, Flores Kaperotxipi dia hoiek. Eta batzutan, Garro bazan basura biltzen ibiltzen zana, txintxarriya jarrita behi batekiñ, basurak biltzen zittuna, ta "ze, San Sebastianak dia ta bihar ta zea ta, konbidatzia nahi dezue? ta, "bai", ta [...], hola asko etortzen zan. Geo Seberinonekuak 'e berriz, Mazaneko zea hori, denda haundi hori, horkuakiñ 'e amistadia haundiya zuen. Denda hortatikan jenerua ta erosi ta iten zituen ta, geo San Sebastianetan igual juten zian konbidau hara. Baiña esan deana, bakoitzak hola kantidade haundiya ez, dozena erdi bat o, o gutxiyo igual, hola.

12. Zarausko Euskal Jaia

- **Erref:** ZAR-011/019
- **Iraupena:** 0:03:08. **Hasi:** 00:54:00. **Bukatu:** 00:57:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

<p>Zarausko Euskal Jaiak. Flores Kaperotxipi pintoreak esan zion berari okurritu zitzaioela Euskal Jaia antolatzea, atzeritarrak luzaroagoan erakartzeko. San Pelaioetik kalejira egiten zuten. Gogoratzen da noiz izan zen lehenengo Euskal Jaia. Nortzuk antolatzen zuten.</p>

Transkripzioa

- Ta Zarausko "Fiesta Vasca" lehen aipatu dezu ta, ezautu al zenun gaztetan, Zarausko Euskal Jaiak? Etortzen al ziñan?

- O, ordurako zenbat urte giñuzen? Euskal Jaiak. Nei esan zian Flores Kaperotxiki pintoriak beai okurritu zitzaioela. Zeatikan, beraneantiak etortzen ziala, ta behin setienbrea ezkeo alde in, alde iñ iten zuela, eta pixkat bertako zea iteko, "Fiesta Vasca" zeatu, montatu ta in behar zuela ta, beak atea hitza, ta zeatu in zula, produzitu in zula. Beraneantiak 'e gozatu iten ziela zea horrekin, jantzi horik eta, zeau ta. Geo, San Pelaiotikan kalea, hola, besotikan danak helduta, batek lepotik, eta bestiak gerritik igual ta.

- (L) Pasakallen.

- Bai. Salto ta zea, brinko zeaiño, botikako exkiñaiño, ta hor bukatu.

- (A) Baiña, Flores Kaperotxipi zure edadekua zan, ez?

- E?

- (A) Flores Kaperotxipi zure edadekua zala?

- Nere edadia baiño zaharro zan hua!

- (A) Zenbat?

- Flores? Zein zea? Jesus, Maria ta Jose! Gure aitan edadia hurreo!

- (A) Bueno, kontua da, esan nahi det, haren idea baldin bazan, zu umia ziñanian Euskal Jaiak ez zan izango.

- Ez, ez, ez, ez. Ni akordatzen naiz noiz izan zan.

- (A) Lehenengua?
 - Bai. Danak zian, ba, Arrutitarrak eta hoiek zian ya oso zean, aurrian ta, Flores Kaperotxipi hori ta haren lagunak, hoiek izango zitun, Arrutitarrak. Aita gallegua omen zan ta, orduan iya euskeraz 'e ez zuen ondo iten, ta geo hobeto iten zun.
 - (L) Udaa luzatzeatik ordun in zun hori.
 - E?
 - (L) Udara luzatzeagatik ipini zuela hori.
 - Bai, udaa luzatzeatik. Baiño beak ateatako hitza zala esaten zun, beak ateatako hitza. Zeatikan, San Pelaiotarrak eta zeak eta, berdura ta zea saldu, ta beraneantiak hemen euki ezkeo, ba konsumitu iten zuela.

13. Denda eta sagardotegiak

- **Erref:** ZAR-011/020
- **Iraupena:** 0:04:07. **Hasi:** 00:57:08. **Bukatu:** 01:01:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak

Laburpena:

Dendak. Taberna eta saltokia biak batera zituzten dendak ere bazeuden. Sagardotegiak: Zabalegi, Roialti... Roialti atzean sardinak erretzen zituzten eta bodegatik sagardoa aterata, afaria egin. Emakumeak ez ziren sagardotegira joaten.

14. Garraioa: kotxe landua eta kotxe "sexta"

- **Erref:** ZAR-011/021
- **Iraupena:** 0:05:25. **Hasi:** 01:01:15. **Bukatu:** 01:06:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

<p>Arrantzaleak Getariatik etortzen ziren. Gaztea zenean ezagutu zituen lau zaldi eta kotxe landua eta kotxe "sexta" Zarautzen. Kotxe bakoitzak bere zaintzailea zuen. Landua dotoreagoa zen eta tapatua, gainera. Getariara halakoetan ibiltzen zen jendea. Getariara bidean olatuek ikaratuta zaldiak okinari pasarazitakoa kontatzen du. Don Leandro medikua.</p>

Transkripzioa

- Orduan, izan 'e, arrantzaliak 'e, arratsaldian Getaitikan nola etortzen zian? Jesus! Bazan espresa esaten ziyoen batei, Benita izena zun. "E, tokaia!", esaten zian, ikasi zun, ikasi zun ta, goizian etortzen zan baldeka zeakin, baldekakiñ o, batzutan otarrakin, eta, "Bai, ze? Getaian arraia gutxi do ta, gutxi do ta" esanez, korrika iñez. Automobill eo zeaikan ez zeon, Getaikotikan, zalduyakin ibiltzen zian denbora hartan, Pelaiotarrak. Es ke, ez zan orduan zeaikan...

- (L) Autobusik ez.

- Ez. Nik Otamendiñen 'e ezautu nitun lau zaldi. Eta kotxe landua, elegantiaua, eta bestia sexta, kotxe sexta, Juanito Azpirozen bataioa hala jun giñan. Kotxe landua, ta han Martelo txikiya, haren kuidadokua. Eta sextan kuidakua zan Javier, Kirikin, Luis Kiriki difuntuan andria...

- (L) Hemen bizi zana, ez, Javier?

- Bai.

- (L) Hor, itxe hortan bizi zana?

- Bai. Jexuxita, Jexuxita, Jexuxitan aitona zan beste kotxe sestakiñ ibiltzen zana. Eta haiek zian, Otamendiñekua zan itxe xahar hua. Zean, Pioneko etxian aurrian kastillanua dao, gallegua o, ta haendikan, haendikan Parrokialdea, harei peatzen zaiola Parrokialdea zan beste etxia, hua Otamendiñeko... Ta han ibiltzen zan, han eukitzen zituen zaldiyak eta karruak.

- Landua ta sexta ta hoiek zer zian karruak, zaldiyan atzian eoten zianak?

- Bai.

- Kotxia baiño aurreakuak.

- Bai, bai. Automobilla baiño lehenokuak.

- Ta han zenbat pertsona sartzen zian?

- Ba, kotxe landuan Juanito Azpirozen bataioa jun nitzan ni, Martelo txikiyan onduan, tartakiñ, eta beheian zian aita eta Mari Tere ta bere umiak eta, huaxe. Eta geo, kotxe sextan madrina ta padrinua ta.

- Eta ze diferentzi dao kotxe landua ta sextan artian?

- Kotxe landua zan eleganteaua. Ta bestia zan sexta, ya... nola dia hemen minbrezko silloiak bezelakuak. Bai, hola, hola, hola indako zea sentzillo bat. Bi lagun aurrian ta bi lagun atzian eo hola. Hua kapotaikan eta gabia izaten zan, hua sentzillua. En kanbio, kotxe landua tapa, zea, kotxe zeakok bezela, eleantiaua hua, ya hua tapatzen zana. Aurria irikiya, e!

- (L) Eta Getaira ibiltzen zian hoiek, ezta? Getaira ta ibiltzen zian hoiek?

- Bai, Getaira ta ibiltzen zianak, zea, Errustanekua, Joxe Maitxo, ogiyakin ta ta jutun zan, eta Getaiko Pelaiok eta 're holako zea zuen, korrienteaua, han ya jendia ibiltzeko ta ya haundixeaua. Geo Joxe Maitxo 're [...] zan ogiyakin ta Getaira, eta olatu izugarriyak, ta, zeara, kamiya hua zeatzen ta, zaldiya zeatu zaio, sustatu zaio, eta ogiyak eta zeak bota ditu, ta Joxe Maitxo 're bai, ta hanka hausi Joxe Maitxo Errustai. Ta Don Leandrok jarri, Don Leandro mediku langillia zan, ba, gixajua.

- (L) Hezur danak konpontzen zituna hemen.

- E?

- (L) Hezur danak konpontzne zituna.

- Hamaikai bai, hamaikai bai, Jesus! Eta Joxe Maitxoi 're beak jarri ixtarra, ta geo, bea etortzen omen zan pausuak eta eamatea ta ibiltzea ta, zea, atenditua 're bai gaixuakin Don Leandro.

15. Baserriko bizimodua

- **Erref:** ZAR-011/023
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 01:08:52. **Bukatu:** 01:10:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Jai egunetan aprobeztatzen zuten baserritarrek lo egiteko edo siesta egiteko. Baserriko bizimodua.

16. Eguraldia; gerra garaian negu gogorrak

- **Erref:** ZAR-011/028
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 01:18:30. **Bukatu:** 01:21:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Eguraldia, ilargia eta mareak

Laburpena:

Eguraldia: udan beroago eta neguan orain baino hotzago egoten zen. Gerra denboran, negu gogorrak egin zituen: elurra eta ondoren izotza. Kanean elurra ia belauneraino egin zuen. Soldaduak hotzez hiltzen omen ziren.

17. Arropa garbitzera garbitokietara; uholdeak

- **Erref:** ZAR-011/031
- **Iraupena:** 0:06:25. **Hasi:** 01:25:40. **Bukatu:** 01:32:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Laburpena:

Astean pare bat arratsaldetan, Zalbidetako erreka joaten zen arropa garbitzera. Emakume asko elkartzen ziren bertan, baina ez zuten tertuliarako astirik. Garbitokiak non zeuden. Arropak erreka zabaletan eramaten zituzten buru gainean. Azken Portuko garbitokia.

18. 7 urte bete arteko bizitza

- **Erref:** ZAR-104/001
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:38
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Lanbideak » Neskameak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

Bere burua aurkezten du. Zarautzen jaio zen, Urtetan. 4 urte zituela egin zuten Urtetako eskola. Irundik ekarri zuten maistra. 6 urterekin eskolan hasi zen, eta 7 urterekin Getariara joan zen umeak zaintzera. Etxera itzuli zenerako, maistrarik ez zegoen.

Transkripzioa

- Ni naiz Benita, eta jayo...
- Eta abizenak?
- Eizagirre Ibarguren, eta jayo nitzan Urteta, Zaausko Urtetan, Gurmendin.

Eta nik, lau urte nitula, Urtetako eskola in zan. Eta eskola horta Ziotzatarrak eta zian orduan alkatiak eta holakuak, eta hemen, botuak eta urtetatarrak bota zituen Ziotzantzako, ta Ziotzaneko hoyek in zuen maistra Irundikan ekarri hemezortzi urtekua. Geo Ziotzaneko Pedrokin ezkondu zan, este... Juliana. Hayek etorri zian, ba, Juliana hua hemezortzi urte, geo bere ahizpa Maria, eta etorri zian, ta... nik lau urte nitula. Geo, sei urte in nitunian, hasi nitzan eskolan, baiña zazpi urte in nitunian kumuniyo txikiya in nun, ta Getaiko izebak umia zaitzeko behar zula, ta ni Getaira umia zaitzea. Umia zaitu eta baarruna eosi ber izaten nun, batzutan erre iten nun e? Zeatikan krixpiyan eo suan gaiñian iten zan, ta mahatsan, ze hoyek, hayen hoyekin ta sua in ber izaten zan, ta batzutan lapikua tapatzez han suak, eta bestetan bai, ta bakizu, ni zazpi urtekua, ta ama harek'e ume txikiya, lepuan ibili ber izaten nun, ta haek beti kalea nahi, ta han ibiltzen nitzan behintzat. Geo handikan etorri nitzaneako, maistrak alde in zula: bakaziyotan jun, ta geyo ez zala torri.

19. Eskolako gorabeherak

- **Erref:** ZAR-104/002
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 00:01:38. **Bukatu:** 00:02:49
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

<p>Maistrarekin zer eta nola ikasten zuten azaltzen du. Euskaraz hitz egiteagatik zigortu egiten zituzten. Gerora beste irakasle batekin hasi ziren, baina gripe-bolada etorri, eta bertan behera gelditu zen.</p>

Transkripzioa

- Ta zuek maistra horrekin ze ikasten zenduen?
- Ba, paluak ein, ta pal... zea, zazpi urtekin o sei urtetikan zazpira ze ingo gendun guk? Palo batzuk eta aatak eta, geo zean, katonan letzen ikasi, ta holakuak. Eskola juteako ia, errezatzen ta ikasi gendun, amonak erakutsi ziun errezatzen. Ba, geo erderaz... euskeraz hitz eiten zunai kastigatu iten zun maistrak, eta erderaz ta asko hitz eiten zuen hango ume jendiak, gu baiña haundiyauak'e; eta guk'e ba erderaz'e orduan ikasi nitun nik errezatzen, gure ahizpa zaharrau ta. Nee anaya ta ahizpa nitun zaharrauak, eta hayek eskola geyo zeatzen zuen. Eta geo handikan... ez dakit zenbat urte izango zian, hurrena behintzat berriz'e, jain... kasan zean, ferreteya... Emilioneke denda horta eskola, nexka zea bat zan, matrimoniyo xahar bat zan ta. Patrox izena zuna, ta harek harekin ibili... hasi giñan eskolan, baiña gripe bolara ikaragarriya altxa zan, ta hamabost egunian bakarrik ibili giñan hor eskolan.

20. Irakasle ugari, baina garrantzitsuena dotrina

- **Erref:** ZAR-104/003

- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:02:49. **Bukatu:** 00:04:04
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Irakaslea baserri guztiek hartzen zuten apopilo denbora baterako, irakasle izan zedin Urtetan. Hark dotrina erakutsi zien gehienbat. Gero Albisturreko andereño bat etorri zen; baina baserrian lana baldin bazegoen, ezin izaten zuten klaseetara joan. Garrantzitsuena komunioa egiterako dotrina ondo jakitea zen.

Transkripzioa

Ta geo handikan beste urte batzuetan, Karlisto're izena zun agure xahar bat ibiltzen zan, zeau, San Sebastianen eskian ibiltzen zan, ta Zarauzko parroko santokristuantzako're bai, ta bea hor bizitzen zan, Jasaste alde hortan eo. Hortik etortzen zan, ta geo, neguan behintzat pentsatu zuen hua hartzia, Karlisto hori. Etxe baten hillabete, beste etxe baten beste basarri batian beste hillabete pasatzen zun, ta gu, basarri batetik bestetik bestetik, hola neguan ibilli giñan, bi negutan hola ibilli giñan haekin. Dotriña, dotriña ikasi, ta zeoze eskribitzen jardun behintzat. Kuentak iten ez zun jakingo zergatikan ez ziun iñoi erakutsi, beak'e ez zun hainbeste jakingo. Ta geo etorri zan, maistra bat ekarri zuen, Albisturkua nik hamaika urte nituanian; ta harek'e bastante eakusten ziun, baiño, basarriyan noiznahi beti lanian gelditu ber izaten gendun, ta eskola gutxi juten giñan. Baiña komuniyua, ba, haundiya iteako, ba, dotriña ondo ikasi behintzat. Hua, hua ondo ikasi ezkeo, bale, bestela ez zuen komuniyua iten uzten, kalabazero lagatzen zuen. Ta bueno, komuniyua in gendun behintzat. Ya hamaika urtekin komuniyua in gendunian, pues, yasta, ya bukatu zan gure eskola.

21. Herrira umezaintzaile

- **Erref:** ZAR-104/004
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:04:04. **Bukatu:** 00:05:23
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

13 urterekin herrira joan zen umeak zaintzera. Han zer lan egiten zituen kontatzen du. Zer soldata jasotzen zuen esaten du. Gerora, nagusiek Benitaren ahizpa hartu zuten sukaldeko lanak egiteko.

Transkripzioa

- Ta geo, hamahiru urtekin eo hola, honea Azpirozenea torri nintzan umia zaitzea.
- Herrira ya?
- Herrira ya. Bai, hori ba. Torri, ta, ba, hor bi urte pasa nitun Azpirozenian.
- Ta han ze iten zenun, egun guztiya haurrak zaintzen?

- Haurrak zaitu, eta gauian beandu arte, hantxe geo fregaketa, eo erropa umian erropa garbitzen eo jardun. Ta goizian seiretan beti jaiki ber, goizeko seiretako jaiki beti, eta eskaillerak eo zeatu, argizaituta eoten zian eta brotatu eo, geure lanak ibiltzen giñun, beste neskamia ibiltzen zuen arratsaldian jostea juten zana. Ta, ba, hola pasatu giñuzen.

- Egun guztiya lanian ta... zerren truke? Zer ordaintzen zizuen?

Ba... aurreneko urtian, hamar pezta hillian; eta hurrengo urtian, azkeneko urtian, bigarreguan, hiru duro. Eta geo udaran Hotel La Perlan eoten zian, hotela eukitzen zuen udazkenetik, udaan hasi ta udazkena bitartian, hiru hillabetian eo han eoten giñan zean, Hotel La Perlan. Geo handikan nie etxea jun, ta nee ahizpak ateatzeko gogua zekan, ta etxe horta torri zan, ba, sukaldeko lanak eitea eo hola, ume-zai ez; ume-zai ya beste bat hartu zuen.

22. Nagusiak errieta egin zionekoa

- **Erref:** ZAR-104/007
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 00:06:40. **Bukatu:** 00:09:03
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Lanbideak » Neskameak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea

Laburpena:

Neskame zegoen etxe batean non egiten zuen lo deskribatzen du. Etxe hartako nagusiak behin errieta egin ziola kontatzen du.

Transkripzioa

Ta, akordatzen naiz, Anjel Azkueneko hortan, zean, Musika plazako hortan bigarren habitaziyuan bizitzen zian, ta txakurra eukitzen zuen. Txakurra eukitzen zuen been kuartuan, ta ni eoten nintzan quarto illun-illun bat, leyo bat sukaldea ta beste leyo bat kumunea, leyuko, sukaldeko argiyakin kumuna argiyo izateaitikan nunbait, leyo haekin han eoten zan. Ta eun batian, jai batian, ba txipiroita... jaitan'e juten zan, ba, hemengo jendia orduan; ta jai goizian karri ditue txipiroiak, eta jaien anayea zean zeon, este... Hernanin. Eta haren launak etorri zian Zaautza nunbait, eta Hotel Otamendiñen afaitan. Ta esan zien, kartoizko kaja batian, han jarri zitun txipiroiak, baten batei eosi zixkiyon, eta esan zian: "jun zaite Otamendiñea, ta Juakiñen launak hor daude, ta esaiozu txipiroi habek gaur arratsian sin falta emateko Joakiñei". Bueno, hartu ditut ta jun naiz: "Esan dit Anjel Azkuen partetik, ba, Juakiñ Azkuei, faborez, sin falta emateko txipiroi habek". Bueno, etorri nitzan etxea ta esan zian: "eman al dezu enkargua?", ta "bai"; "nola eman dezu?", ta "ba, Anjel Azkuen partetik Juakiñ Azkuei txipiroi habek sin falta gaur emateko", "Jesus! Nola izan litteke hain edukaziyo gutxikua ta basarritar..." ez dakit ze... bueno, nik nehiko nearra in nun, begiyak haundi-haundi... "jun zaitez, eta esayozu: Don Anjelen partetik txipiroi hoyek señorito Juakiñei emateko sin falta". Begiyak honenbeste haundi in, ta han nua, ta hoyek zean emen zaben, Pioneko ixkiñan emen zauden, nik ez nitun ikusi; hoyek ikusi emen ninduen. Jun naiz, ta berriz jun naiz, ta: "zea, Don Anjelen partetik, faborez, sin falta gaur entregatzeko señorito Joakiñei". Parre in zien neskamiak, eingo ez zien, ba!

23. "Amerikanoen" etxean neskame

- **Erref:** ZAR-104/010
- **Iraupena:** 0:03:09. **Hasi:** 00:13:34. **Bukatu:** 00:16:43
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerra aurea » XIX. Mendea
- Lanbideak » Neskameak
- Ekonomia eta industria » Kanpora lanera
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:

"Amerikano" batzuen familian ere egin zuen lan ezkondu baino lehen. Han gustura ibili zen, jende arrunta baitziren. Familia hartako amonak kontatutako pasadizoak gogoratzen ditu. Ameriketara joan zen semeekin, eta gero itzuli egin ziren.

Transkripzioa

- Geo, amerikano batzuekin eon ziran, ez? O amerikano famili batekin.

- Bai, ezkontzeko aurriz, berriz'e gure amak berriz'e gure pariente batzuen etxekuek zian hayek, eta berriz'e udaan esan zien, ba, hara juteko, udazkenian ezkondu bihar nun ta. Ta udaa pasatu nun han, baiño han ondo. Hayek ez zuen dona eta doñaik eta holakoik ez zuen izaten hayek.

- Baiña han, desberdiña, desberdin biziko ziran, ezta? Amerikanuak bere ohitura raruak eta...

Bai, baiña hayek korrientiak... Ez, hayek korrientiak, amerikanuak ez zian, hayek zian gizona naparra eta andria Segurakua. Jende... Segurako basarri batekua hua're. Eta beste naparra're, berriz, zea zan, aita gazteik hil, eta bi anai gelditu, ta Ameriketa ama alargunak eaman zitun; ama alargun horren, zea, anaye batena eaman zitun bi seme hoyek. Ta amona xar hua zan, laroetabost urte zitun ni han nitzanian, ta esaten zun, ba, gerra karlistako denboran bea nexka gaztia zala Naparruan, eta han nola zeon zea batian, taberna batian neskame bea. Ta ez zala ez urikan etxietan, eta argiikan'e ez, luz elektrikaikan, denbora hayetan. Eta nobiyua in omen zun, kapitana, amonak esplikatzen zun, eta gau batian esan emen ziyon etxekoandriak, Joxepa zun izena baiña "Pepa, uran tantoik ez daukau, ta nobiyuak launduko dizu iturrira juten". Eta kandela faola, faol batian, bakizu faolak nola dan kristalezko...? Kanposantua ta nola eamaten dia ba faolak? Bueno ba, estilo hortan etxietan ta izaten zian farolak, kandelan jarri, ta bueno ba, hartu zituen ontzi bat eta farola amona horrek, eta bestek, nobiyuak hartu zun beste marmita... ta ureta, iturrira jun zian, illunpetan. Eta geo, iturrira jun zianian, bere kapitan horrek eundoko helduak eman dixkiyo amona horrei, eta amona hori, neska gaztia, hasarretu da ziharo, ta eman diyo despeida, hoi in ziyolako. Ta etxekoandriak, tarteko jarrita, barkaziyo eske, ta "ni hablar de peluquín!", geyo ez ta... Eta geo ezkondu zan, ba, amona hori ezkondu zan zea batekin: Vidal apellidua zun gizon bat, mutil bat, oso mutil jatorra zan, igeltserotza ta arotzak eta hola danak iten zitun hola, basarritan ta hola zeakin ibiltzen zana. Eta geo gazteik hil gizona, eta alargun gelditu zan. Ta bea orduan ibiltzen zan, ba, mahastiyetan ta atxurrian ta bi semi hoyek sostenitzeko. Ta hoyek pixkat gogortu zitunian, Ameriketa deitu ziyoen, ta Ameriketa jun zan bi semiakin. Ta bi seme hoyekin jun zan Ameriketa, eta biyak ezkondu zitzaixkiyon. Ta biyak ezkondu, eta geo ba, bat, zean, Irunen bizitzen zan, ta bestia hementxe, Zarautzen.

24. Asto arrosa

- **Erref:** ZAR-104/012
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:18:40. **Bukatu:** 00:20:02
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Asto arrosa izan zuten. Ezaguna izan zen asto hura. Haren umeak ez ziren arrosak izaten, eta haren esnea bronkioetarako ona zela zioten.

Transkripzioa

- Bai, bueno, bukatzeko, anekdota bat o bakazue zuek... asto roxa antzeko

bat bazeneukaten baserriyan o? Nola zan hori?

- Bai, astua roxa bagendun, baiña horretako ze esplikatu ber dizut nik?

- Nola jaio zan asto hori o... nundik etorri zitzaizuen eo...?

- A, asto hori zeatik ekarri zuen, Motrikotik ekarri zuen, Motrikotikan astua ekarri zuen. Eta...

- Roxa izanda, pixkat famatua ingo zan, ba?

- Hoixe, bai, bai, bai, bai, bai, hola zan, rosa... ez zan, horiya ez zan, rosa iten zuna zan.

- Izenik o jarri al zenioen?

- Ez, ez, ez, ez, ta besteik ez det ikusi hain rosaikan iñunen itxe... zeaikan. Eta geo, umiak'e izaten zitun, baiña rosak ez zitun behiñ'e izaten, behiñ'e ez. Eta esnia dezente zun, ta haren esnia bildu ta doña Asuntzionei eamaten giñun, zeantzako, bronkiyuantzako oso ona zala ta. Han jun, ta esnia rasta-rasta basoa atea, eta doña Asuntzionei ematen giñun astuan esnia, bronkiyuantzako oso ona zala ta.

- Beste holako animala raroik o ezautu al zenduen zuen baserriyan o hor inguruan?

- Ez, ez zat eokitzen nei holako gauza zeaikan gendunikan.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2025-12-27

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com